

## **NAZARIO DE OLEAGA (1884–1961), BILBOKO GOTZAITEGIAREN ITZULTZAILE JURIDIKOA**

Bilboko lege-giroan guztiz ezaguna da, batez ere adineko abokatuen artean, Nazario de Oleagaren izena. Legelari gazteagoek, ordea, berehala lotuko diote izen horri egun Bizkaiko Jaurerriko Abokatuen Bazkuneko buru denaren nortasuna. Izan ere, bi-biok, izen-abizen berekoak izan eta badute euren artean urte mordoxkaren tartea eta odolaren esteka, Nazario lehena (1884–1961) egungoaren aitona baitzen.

Lehen hura da gure interesekoa, hots, XIX. mende-hondarrean sortu eta Zeanuriko idazkari izateaz aparte, Bilbon, urte luzeetan, abokatutzan jardun zuen Nazario Oleagak. Haren ondorengoak ere ofizio berekoak ezagutu ditugu aspalditik Bizkaiko hiriburuan.

Bada, alabaina, haren biografian, ohiko izaten ez dena euskal legelarien artean. Horixe da, besteak beste, euskaltzaletasuna, euskararentzako grina eta garra. Halakoxea zuen On Nazariok, eta halakoxea ere erakutsi zuen bere bizi osoan, ideologia eta politika guztiak gorabehera.

Hura Azkue zenaren adiskide mina izan zen, eta Euskaltzaindiaren hasiera eta sorreratik euskaltzain urgazle. Gerraz geroko Akademiako idazkaritza ere hark hartu zuen. Dena den, beti jakin zuen gizakiaren gainbeherak bazter utzi, eta euskarari sendo oratu eta heltzen.

Ezaguna denez, Espainiako gerra zibilaren ondorengo garaiak ez ziren errazak eta samurrak izan euskararentzat. Debekuak, gutxiesteak, isunak... bata bestearen ondoan etorri zitzaizkion euskal hizkuntzari, abertzaletasunaren sunda erakusten zuen neurrian.

Baziren, edozein modutan ere, horri aurre egiteko zina hartu zutenak. Lehen esan legez, Azkue eta Oleaga agertzen dira, halako egile bakarti biren antzera, Euskararen Akademia erroterotik sostengatzeko eta jasotzeko. Laster etorri zen, bi-bion lagungarri, Krutwig-en egitekoa, eta hortik bideratu ziren, bideratu ere, geroko historiak eta zereginak.

## **OLEAGA, ZUZENBIDEA ETA EUSKARA**

Ezaguna da, hortaz, Oleagak ondu zuena euskalgintzan. Ez horrenbeste, hark egin zuen ahalegina, euskara zuzenbidearen hizkuntza izan zedin.

Bitarikoa izan zen hori: bateko, euskara bera edozein administrazio-maila eta -gertaeratan erabiltzeko eskubidea bermatuz; hartara, euskararen ofizialtasuna ozen aldarrikatu zuen Errepublikaren garaian, Euskal Estatutuaren idatzaldia moldatu zenean. Harenak dira hainbat eta hainbat esamolde eta proposamen, funtzionarioen izendatze-bidean euskara balioesteko eta aintzat hartzeko. Bestela ere, bazuen hark halako dohain berezia, euskara artez eta moldez erabiltzekoa, eta, mintzodun nahiz idazle, eskuera ederra erakutsi zuen euskalgintzaren esparruan.

Testuetan barrena abiatuz gero, gerra aurreko testu nagusia du hark, 1922-1923. urte bitartean argitaratua, *Zurtasun gogoa* izenekoa, aurretiaz Gregorio Mujika euskaltzale gipuzkoarrak egin zuena egokituz eta euskaratuz. Herritasunaren bidetik jo zuen orduan Oleagak, berak ere hala aitortuta:

Euskera errezean egiteko bere esan eusten. Askok uste izaten dau euskera erreza aitatu ezker, itz barri bakoa baña erdera kadaz yosia izan bear daula. Ez dot nik ori uste, itz barri barik bere, baserritarrak ezautu eta euren autuetan erabilten dituen

euskera utsezko itzakin, erderatiko gairik geionok, gure gai  
oni lenengo atalena langoak izan arren bere, azaldu leiz-ta.

Ageriko lan idatzietan baino, ahozko edo jendaurreko ger-  
tatu ziren gainerakoetan ere gogotsu jardun zuen Oleagak. Haren  
seme Jabier Oleagak esanikoari eutsi, eta badakit sarri askotan  
izan zela Gotzaitegiaren dotrina-liburuetan irakurle eta zuzentzaile  
fin eta zorrotza.

Ez dut, hala ere, haren luma-aztarnarik bilatu testurik tek-  
nikoenetan, hots, juridikoetan. Egia esan, ez nekian, haren tan-  
kera zer-nolakoa zen, orduko hizkuntza-joeretatik aldendua zein  
bateratsua, hitz teknikoaren gorabeheretan garbizale ala herritar  
jokatu zuen... Horiek guztiak galdegai zitzaizkidan, batik bat  
hogeigarren mendeko legelari euskaldun bilbotar batek izan zezakeen  
euskarazko eitea zehazterakoan. Lekuko bakarra nuen, hor-  
taz, hark aspaldian euskaraz idatzitako liburutxoa.

## **BILBOKO LEHEN GOTZAIAREN IZENDATZE-GUTUNA: EUSKAL TESTUA**

Aurrekoaren argigarri, zalantzarik gabe, aurtemein Jabier  
Oleaga semeak esku artean jarri zidan bestelako testua, alegia,  
Monseñor Casimiro Morcillo Gonzalez-ek, Bilboko lehen gotzaia  
izan zenak, 1950. urtean Nazario Oleagari bidali zion eskutitza:

El Obispo de Bilbao/Sr. D. Nazario de Oleaga/Bilbao. Muy  
distinguido señor mío: Hasta hace unos días, aunque lo desea-  
ba, no he sabido el nombre del traductor al vascuence de la  
bula de mi nombramiento y estaba impaciente por expresar-  
le mi gratitud por el servicio que me había prestado. Al expre-  
sar a Vd. estos mis sentimientos me complazco en ofrecerme  
incondicionalmente para todo cuanto yo pueda servirle.  
Atentamente le saluda y bendice. (Casimiro Morcilloren sina-  
dura eta errubrika daude). Bilbao, 3 de octubre de 1950.

Testuaren itzultzaile nor den, beraz, argiturik geratu zen.  
Testua bera ere, aparte-aparte ez, eta berehala eskuratu nuen,  
Bizkaiko Foru Aldundiaren Bibliotekan.

Testuaren garrantziaz jabetzeko, gogora bedi ordu arteko egoera, hiru euskal herrialdeek (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoak) Gazteizko Gotzaitegia osatzen zutela. Gerra ostekoa da herrialde bakoitzaren Gotzaitegia moldatu eta bat zena hirutan geratzea. Hiru egite horretan, bistan da, Bilboko Gotzaitegiaren eraikitzea zen jokoan, bai eta lehen gotzainaren izendatze-agiria ere. Testua, ezbairik gabe, sortzaile eta eratzaile zen, ospe eta gur handikoa.

Izatez, hirutara agertu zen testu hori, Boletin Oficial del Obispado de Bilbao delakoan, lehenengo zenbakian, 1950. urteko irailean. Elizak hiru hizkuntzetan argitaratu zuen testua: latinez, gaztelaniaz eta euskaraz. Edonondik begira dakiola ere, orduko giro malkartsuan Eliza izan zen, beraren muga eta guzti, euskarari gun e txikia eskaini zion erakunde bakarrenetarikoa.

Lehendabiziko galdera izan daiteke zein hizkuntzatik itzultu zuen Oleagak testua, latinetik edo gaztelanietatik. Erantzuna bigarrenaren aldetik lerratuko nuke. Areago, testuen erkaketa eginda, badirudi jatorrizko hizkuntza latina izan zela, gero horren gaztelaniaratzea, eta, azkenez, euskaratzea bera. Xede-hizkuntzak, beraz, gaztelania eta euskara, hurrenez hurren, eta bigarrena lehenaren galbahetik.

Hiru testuok honetara zetozen<sup>1</sup>:

PIUS EPISCOPUS; SERVUS SERVORUM DEI, dilectis Filiis, Capitulo Ecclesiae Cathedralis, Clero et Populo Civitatis et Dioecesis Flaviobrigensis salutem et apostolicam benedictionem. Hodie Nos, de venerabilium Fratrum Nostrorum S.R.E. Cardinalium consilio, deque apostolicae Nostrae potestatis plenitudine, ad Flaviobrigensem Ecclesiam vestram, a Nobis per Apostolicas sub plumbo Litteras "Quo commodius" die secunda Novembris, anno praeterito, datas in cathedralem, metropolitanam Ecclesiam Burgensi suffraganeam, erectam, venerabilem Fratrem CASIMIRUM MORCILLO GONZÁLEZ, hactenus Episcopum titulum Agatheopolitanum, quem carissimus in Christo Filius perillustris ac valde honorabilis vir

---

<sup>1</sup> Euskarazko testuan *r* gangardunak, beti *rr* transkribatu dira, orobat *l* gangardunak, *l* hutsarekin. Grafia, salbuespen horiek eginda, orduko aldizkarian argitaratu zen modu berean ematen da.

Franciscus Franco y Bahamonde, Supremus Hispanicae Nationis Moderator, iuxta conventionem, die septima Iunii mensis, anno millesimo nongentesimo quadragesimo primo initam, Nobis rite praesentavit, transtulimus ipsumque illi Episcopum praefecimus et Pastorem ac proinde a vinculo ipsum absolvimus Ecclesiae Agathopolitanae. De qua re vos omnes Nostris hisce Litteris certiores facimus vobisque in Domino mandamus ut eundem Casimirum Episcopum devote recipientes ac debito prosequentes honore, salubribus illius monitis ac mandatis obedientiam praestetis ita ut ille vos devotionis filios et vos eum patrem benevolum invenisse gaudeatis. Volumus autem ut, cura et officio Ordinarii, qui modo dioecesis vestram regit, hae Litterae Nostrae publice perlegantur tum in capitulari conventu, qui primus post eas acceptas habebitur, tum ab ambone in ecclesia cathedrali, primo adveniente die festo de praecepto recolendo. Datum Romae apud S. Petrum anno Domini millesimo nongentesimo quinquagesimo, die tertia decima Maii mensis Pontificatus Nostris anno duodecimo. =A.L.= Pro S.R.E. Cancellario F. Card. Marchetti Selvaggiani, S. Collegii Decanus. Alfridus Liberati, Canc. Apost. Adiutor a Studiis. Arthurus Mazzoni, Prot. Aplicus Bernardus De Felicis, Prot. Ap. Expedita die vicesima tertia Iunii Anno "duodecimo". Alfridus Marini, Plumbator. Reg. In Canc. Ap. = Vol. LXXIX= N.34= Aloisius Trussardi. A. Marini, Scriptor Aplicus.

PIO OBISPO; SIERVO DE LOS SIERVOS, A los amados hijos, Cabildo de la Iglesia Catedral, Clero y Pueblo de la Ciudad y Diócesis de Bilbao, salud y bendición apostólica. En el día de hoy, Nos, con el consejo de Nuestros venerables Hermanos, los Cardenales de la Santa Iglesia Romana, y con la plenitud de Nuestra potestad apostólica, a vuestra Iglesia de Bilbao, por Nos erigida en Catedral sufragánea de la Iglesia metropolitana de Burgos, en las Letras Apostólicas selladas "Quo commodius", das el día dos de noviembre del año pasado, al venerable Hermano CASIMIRO MORCILLO GONZÁLEZ, hasta ahora Obispo titular de Agatópolis, a quien el queridísimo hijo en Cristo, el muy ilustre y muy honorable varón Francisco Franco Bahamonde, Supremo Jefe de la Nación Española, nos presentó debidamente, conforme al convenio suscrito el día siete de junio de mil novecientos cuarenta y uno, le hemos trasladado (a vuestra Iglesia de Bilbao) y nombrado Obispo y Pastor de la misma, desligándolo, por lo tanto, del vínculo de la Iglesia de Agatópolis. De lo cual os hacemos sabedores a todos vosotros por nuestras Letras Apostólicas, y os mandamos en el Señor que, recibiendo devotamente al citado Obispo Casimiro y otorgándole el debido honor, rindáis obediencia a sus saludables

avisos y mandatos, de tal manera que os alegréis, él de haber encontrado en vosotros unos hijos devotos y vosotros en él, un padre benévolo. Es nuestra voluntad que, por la solicitud y ministerio del Ordinario que al presente rige vuestra diócesis, estas Nuestras Letras se lean en público en la primera reunión del cabildo que se celebre después de recibidas y en el púlpito de la iglesia catedral en el primer día festivo de precepto. Dado en Roma, junto a San Pedro, en el año del Señor de mil novecientos cincuenta, el día trece de mayo, en el año duodécimo de Nuestro Pontificado.=A.L= Por el Canciller de la Santa Iglesia Romana. F.Cardenal Marchetti Selvaggiani, Decano del Sacro Colegio. Alfredo Liberati, Coadjutor de Estudios de la Chancillería Apostólica. Arturo Mazzoni, Protonotario Apostólico. Bernardo de Felicis, Protonotario Apostólico. Expedida el día veintitrés de junio del año duodécimo. Alfredo Marini (guardasellos). Registrado en la Chancillería Apostólica =Vol. LXXIX= N.34 Aloisius Trussardi. A. Marni, Amanuense Apostólico (Hay un sello en plomo)

PIO AITA-SANTU; JAUNGOIKOAREN OTSEINEN OTSEÑAK Bilbo'ko Uri ta Eleizbarrutiko seme-alaba maite, Eleiz Nagosiko Abade-Batzar, Eleiz-gizon eta enparau biztanleai, Osasuna ta Bialdu-onespena Arako "Quo commodius" idazki bidez, igesko Semendiaren bian, Burgos'ko Eleiza Nagosiaren menpekotzat Neronek irasiriko Bilbo'ko Eleiz-barruti orretara gaur aldatu ta orko Gotzaiñ izentau dogu Gure Anai agurgarri CASIMIRO MORCILLO GONZÁLEZ, orain arte Agatapolis'ko izenduna, ta ori Gure anai agurgarri Erroma'ko Eleiz Deuneko Kardenal'en onuz, ta España Laterriko buru dan Gure Kristo'gan seme maite-maite, Francisco Franco Bahamonde, gizon argi ta dedutsuak, mila bederatzireun ta berrogetabat'garren Bagilaren zazpian itunduriko egiunearen arauz, aurkezturik, eta Agatapolis'ko gotzaintza itxi ondoren.

Guzti au, Gure Bialdu-Idazki onen bidez, iakin erazoten dautzuegu zuei gustioi, ta Jauna'gan agindu, abegi onez artu dagi zuela CASIMIRO, zuen Gotzain au, beroni iagokon omena egin, beronen esan eta aginduetara etzun, eta alkarregaz poztu zaitze, Gotzaiña alako seme-alaba menak zuekan aurkitu ditualako, ta zuek alako aita on eta arduratsua dozuelako Gotzaiñagan.

Aldi honetan zuen goterki edo Eleiz-barrutia darabilenaren bitartez, Gure Idazki au lenengo egingo dozuen batzarrean agirian irakurri ta lenengo iai-egunean Eleiz Nagosiko iztokitik iragartea, da Gure naia.

Erroma'n, Pedro deunaren ondoan egiña, Jauna'ren mila bederatzireun eta berrogetamargarren urteun, Gure Goi-gotzaintzaren amabigarrenean.

Erroma'ko Eleiza Guren Erroma'tar Idazkari-ordez Marchetti Selvaggiani, F. Kard. Batzarguren Nagosia. Alfredo Liberati, Bidali-Idazkaritzarako Ikas-onularia. Arturo Mazzoni, Bidali Ziñaldari-nagosia. Bernardo de Felicis, Bidali Ziñaldari-nagosia. Amabigarren urteko Bagilaren ogeitairugarren egunean. Alfredo Marini, Sillu-zain.

## **OLEAGA, ITZULTZAILE: EUSKAL TESTUAREN EZAUGARRIAK**

Testuaren euskarazko lerroak aurrean ditudala, azterketarako osagaiak sailkatu beharrean nago, bizpahiru maila desberdin bereizteko asmotan. Esan dezadan aurretik nire gogoia juridikotasunarena dela, alegia, testu honek erakusten dituen xehetasunak ikuspegi horretatik ikertzea. Lagungarri ditut euskarazko grafia, morfosintasia, terminologia, eta diskurtoaren haritik joatea. Azken xedea, alabaina, bestera darabilt, asmotan baitut, Oleagak euskaraturiko testu honen bidez, itzulpen juridiko ororen egokiera, eta hizkuntzen eta kontzeptu juridikoen arteko baliokidetasuna agerian jartzea.

Horretarako jakingura, lehen esan bezalaxe, egilearen eta dataren aldetik datorkit, ez baita erraza garai horretan halako testu espezializatua aurkitzea, nortasun handiko euskaltzale baten eskutik. Bestalde ere, itzulpen horren egilea ez da literaturan edo filologian diharduen tankerakoa, ezpada lege-ofiziokoa, lanbide horretakoa, egunero-egunero lege, auzi eta gainerakoetan burubelari dabilena. Badaki horrek, hitzen moldeekin batera, hitzen esanahia ere pisuzkoa dela zuzenbidearen alorrean. Hitzen esangura ezagutzen du, eta, bi testuon arteko kulunkan, oreka bizia gorde behar du, hizkuntza batean adierazia bestean huts eta ondorio juridikorik gabekoa gerta ez dadin.

Hortaz, egin dezadan nire lehen zedarriztapena:

### 1. Grafia

Azpimarratzekoa da, grafiaren aldetik, garaian garaiko grafia erabiltzen duela Oleagak, inolako duda-mudarik

gabe. Hainbatez, *s/z* bikotea gerra aurreko nahasian dator, *igesko, irasi, Semendia, gustioi...*; modu bertsuan, Oleagak beti darabil *r* gangarduna, komatxoarena ere nabarmen zaiola, *Eroma'ko, Eroma'tar...*; *i* latindarra, Azkueren erara: *iakin, iagokon, iai-egunean...* Letra larri eta txikien erabileran ere, ageri-agerian gaztelaniaren eragina. Horrenbestez, gaztelaniazko letra larriak, erakundeak izendatzeko letra-molde berberaz ematen dira euskarazko testuan, zenbait kasutan ere, erlijioaren goi-mailako ustea adierazi nahi delarik. *Ikus, bestela, Gure Goi-gotzaintza, Gure naia, Gotzain au, Gure Bialdu-Idazki, Gure Anai agurgarri...*

## 2. Morfosintasia

Nahiz deklinabidea (*biztanleai, alkarregaz, zuekan...*), nahiz aditza, bizkaierakoak ditu. Azken horri dagokionez, aditz-izenak mendebaldeko moldeetan datoz: *izentau, iakin erazoten, poztu, aurkitu, irakurri...*; aditz trinkoak eta laguntzaileak, eite berekoak: *dogu, dautzuegu, dagizuela, zaitze, darabil, iagokon...*; zer esanik ez, aditz nominalizatuak eta partizipioak: *iragartea, egiña...* Bada, Elizaren agirietan, Aita Santua mintzo delarik, harako *Nos* edo plural maiestatikoa, ohi-ohiko dena, agiri eta testu kanoniko-etan; horren euskaratzea *Gu* izenordearekin eman bada ere, esango nuke betegarri duela, lehen esan legez, letra larrien erabileran, *gu* horren gogo eta aginduak gizabanako guztienak baino goragokoak direla argi uzteko.

## 3. Terminologia

Hauxe izan daiteke arlorik esanguratsuena euskararen ikuspegitik. Egin-eginean ere, bertara batzen dira ezaugarri azpimarragarrienak. Besteak beste, jarraikoak:

3.1. Bizkaia aldeko lexikoa: *arako, enparau, Eleiza, Semendia, Bagila, etzun...*

3.2. Elizaren barruko erakunde eta karguen izendazioak:



*Eleiz Nagosiko Abade-Batzar, Eleiza Nagosia, Eleiz-barrutia, Gotzain, Erroma'ko Eleiz Deuna, gotzaintza, Bialdu-Idazki, goterki edo Eleiz-barrutia, goi-gotzaintza, egiunea, Erroma'ko Eleiza Guren, Bidali-Idazkaritzako Ikas-onularia, Bidali Ziñaldari-nagosia, Sillu-zain...*

3.3. Agintaritza eta bizimodu zibilarenak: *Bilbo'ko Uri, España Lateraliko buru...*

3.4. Igarri-igarrian dago Oleagak ezagutu zituela gerra aurreko giro aranzalea eta, areago, haren mendean plazaratu ziren hainbat hitz juridiko-administratibo. Orobat, gerra garaiko (1936-1937) *Euzkadi'ko Agintzaritzaren Egunerokoa*<sup>2</sup>. Horren aztarnak ere begi-bistakoak dira testu honetan. Aukeran daude testuan zehar, adibidez, *rasi (crear), -ren onuz (aholkuz), laterri (estado), ziñaldari-nagosia (protonotario), goterki (diócesis)* eta abarrekoak.

Aurrekoarekin batera, eta agiriaren lerro artean bada ere, badatoz betidaniko hitz euskaldunak, esanahi berrietan erabiltzeko jokaerari lotuak. Zabaltze semantikoaren barruan koka daitezke, esaterako, *egiunea*, hitzarmen hutsetik abiatu eta testu honetan Elizaren eta estatuaren arteko konkordaturia (hitzarmen-mota berezia) adierazi nahi duena, eta *bidali* aditz-izena, *apostol* itzultzeko gerora ere erabili izan dena.

Hitz gutxitan esateko, testu honetan garbizaletasunaren aldeko apustu mailakatua egiten da, gerra aurrean orpoz orpo eta bala-bala ibili ziren hitz berrien alde itsu-mustuan ibili gabe. Arian-arian ere berba zaharrak testuraten dira, hainbat euskaltzainek ondu eta landu zuten joerari eutsiz (Azkue, Eguzkitza).

---

<sup>2</sup> Horren inguruan, ikus: *Euzkadi'ko Agintzaritzaren Egunerokoa, Hiztegia*. IVAP, 1997, Bilbao, eta LOBERA, A.: "Hainbat jakingarri Euzkadi'ko Agintzaritzaren Egunerokoaren gainean", *Karmel*, 3 (1995), 28.etik 55.erako orr.

## 4. Diskurtsoa

4.1. Zuzenbidearekin eta legearekin zerikusia duten esa moldeak, aginduaren ideiari lotzeko, egitura performatibo baten barruan datoz: *Neronek<sup>3</sup> irasiriko..., izentau dogu..., Kardenal'en onuz..., itunduriko egiunearen arauz, agindu... hartu... omena egin... eta... poztu,...* da *Gure naia*. Areak ere, gaztelaniazko agindua, *os hacemos sabedores...* y *os mandamos*, modu esanguratsu batez ematen du Oleagak. Aldez aurretik aditza bere laguntzailearekin dakar: *iakin erazoten dautzuegu*, eta gero aditz-izen soila: *ta Jauna'gan agindu*, soiltasun horren bidez halako dotoretasun eta baliokidetza-maila lortzen duela euskararentzat, aditz laguntzaile bigarren aditzaren ondoren jarriz gero inola ere lortuko ez lukeena.

Hala jarrita, gainera, bigarren horrek bide ematen dio *agindu* horri ondorio juridikoak ezartzeko, hain zuzen ere, lau manu zehatz: *a) abegi onez hartu dagizuela*, *b) beroni iagokon omena egin*, *c) beronen esan eta aginduetara etzun*, *d) eta alkarregaz poztu zaitetze*. Aintzat hartzeko, bestetik ere, osagarrien lotura, batzuetan *-la*; bestetzuetan, aditz-izena; eta, ohargarriagoa dena, agintera kutsuko aditz-forma.

4.2. Agindua bazen aurrekoa, nahi edo gurari hutsa da gerogarrenekoa. Berriz ere, Oleagak ezohiko bide batetik darama joskeraren norabidea, eta hitzurrena bestera dakar. Paragrafoaren hasiera luze baten ondoren, zer den bere nahia adierazi nahi du. Modu horretan, eta gerra aurrean boladan zen sintáis-ereduari helduz, horrek subjektua aurretik eskatzen zuen, gero predikatua, eta azkenean aditza. Oleagak, aldiz, lehen predikatua, gero aditza, eta azkenean subjektua, garaiko legea nolabait hausten duen eskema baten bidez (... *iragartea*, *da Gure naia*).

---

<sup>3</sup> Hemen euskarazko testuak ez du batzen, ez latinaren *nos* hori, ezta gaztelaniazko *nos* bera ere; eta, plural maiestatiko horretatik, *ni* delakora doa. Testuaren beste aipuetan, aldiz, *nos* (gu) hori gordetzen da.

4.3. Ohartzekoa ere, azkenez, aurreko erregimenaren buruzagiari hiru testuek egiten dioten aipamena:

- a) Latina: ... *quem carissimus in Christo Filius perillustris ac valde honorabilis vir Franciscus Franco y Bahamonde, Supremus Hispanicae Nationis Moderator...*
- b) Gaztelania: ... *el queridísimo hijo en Cristo, el muy ilustre y muy honorable varón Francisco Franco Bahamonde, Supremo Jefe de la Nación Española...*
- c) Euskara: ... *ta España Lateraliko buru dan Gure Kristo'gan seme maite-maite, Francisco Franco Bahamonde, gizon argi ta dedutsuak...*

Nabari-nabaria, horren ondorioz, itzultzaileak egiten duen jokoa, Francori tituluak eratzikitzeko tenorean. Zentsuraren atzaparrak ote?

## **OLEAGA, GARAIEN ARTEKO UZTARDURA**

Testuaren nondik norakoak azaletik argituta ere, pentsatzekoa izan daiteke ea Oleagak ondu zituenaren modukoek aurrerapidea ekarri zuten ordu arteko euskalgintzaren bidean.

Gerra osteko Bizkaian, euskararen jendaurreko erabilera deuseza zela eta, erantzuna, niretzat behinik behin, baiezkoa da, betiere ahaztu gabe kanpoko egoerak erro-errotik baldintzatu zuela testu hauen sorrera. Onik onenean ere, testu hauek ez dira besterik ofizialtasun elebatar baten zirrikituek onartzen zituzten adibide soilak baino, hain zuzen ere, estatuaren helmenetik at zegoen erakunde baten eskutik etorriak.

Erakunde horrek euskara zuen ezinbesteko lagungarri, urte horietan bertan, Bizkaiko herri euskaldunari Jesukristoren fedea erakusteko. Hori gorabehera, aitortu, mirestu eta eskertu behar da Elizak urte lasgarri haietan halako testu garrantzitsuak euskaratzea, horrek herrialde baten egoera elebiduna agerian uzten baitu.



Argazkian Morcillo jauna, Bilboko gotzain berria, eta Nazario Oleaga, gotzainaren izandapenaren euskaratzailea, ikus daitezke. Nazario Oleaga irudiaren eskuin aldean agertzen da, trajez jantzita (gotzainaren ezker aldean dagoen bigarren gizonezkoa, estalkiaren azpian). Argaskia gotzainaren sarrera egunean dago (1950- IX-8)

Horretan da eredugarri testu hau. Baita guri, egungo legelari eta itzultzaile euskaldunoi, osterantzeko kontuak erakusten, batez ere euskararen barruko erabileran, testu horrek bidenabar plazaratzen baitu, itzultzailearen aldetik, aparteko ahalegina, lehendik zetorren tradizio laburra eta premia berrien errealitatea lotzeko. Izpi berriak datoz testu honen baitara, egokiro moldatzen baita bertan mezuaren eta azalaren arteko oreka, aginduzkoa zen orduko euskal sintasiaren gainetik.

Menturaz, egungo itzultzaile juridikoak duen erronka berbera, euskaratze-bidean egunero makina bat testu itzuli arren, sarri-sarri aurretiaz egindakoaren berri izaten ez baitu.

**Andres Urrutia**